

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2020ko jarduera ekonomikoen gaineko zerga: borondatezko epean ordaintzeko aldia

Nik, Erika Letamendi Hurtadok, Arabako Donemiliagako Udaleko alkateak,

Jakinarazten dut: 2020ko azaroaren 20tik aurrera ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2020ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 20ra.

B) Betearazte aldia: 2020ko abenduaren 21etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko lekua eta modua:

A) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera mantentzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Bankuetan ez helbideratutako ordainketak:

Ordainketa tokiak:

– Kutxabanken bulegoak.

– Laboral Kutxaren bulegoak.

– Internetez, Donemiliagako Udalaren web orrian: www.donemiliaga.eus/es/ayuntamiento (Nire ordainketa).

III. Gomendioak:

Bankuko helbideratzeen altak edo aldaketak eta jakinarazpenetarako helbideen aldaketak Donemiliagako udaletxean izapidetu behar dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2020ko azaroaren 11

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO